

**Euskerazko lehenengotako pankartia Oñatin**

**N**oizku eue da, ba, Oñatin ezaguketan dogun euskerazko lehenengo pankartia? Eztaگو ziur esaterik, baiña gaur dakartzuegun hau antxiñakuenetakua dala pentsau geinke. Aurretik egon, akaso, egongo ziran. Baiña guri behintzat etxaku horren testigutzarik ailegau. Izatekotan, Arantzazuko Ama Birjiñiaren koronaziñukuan (1886), edota Oñatin ospatu ziran Euskal Jaixetan (1902) jarriko euen halako kale-inskriziñoren bat. Egixa da Urrutxu aldeko kanposantu barrixa jaso zanian, erdi-erdixan daguen harrizko kurtziaren oiñarrixan (1875) euskerazko esaldi batzuk ipiñi zirala (irakurteko moduan dagoz

oraingudiok be); baiña eztoگو orduko argazki edo grabaduetan bestelako euskal testurik gure herrixan. Bada, XX. gizaldixaren hasieran-edo, San Martiñen ataratako beste fotografixa bat bazkari politikoko bateko mahakidiekien, eta han be euskerazko kartel moduko bat agiri da.

Gaurko argazki honein barri gehitxuago badakogu. Bujero ingurutik (garai haretan **Fonda del Comercio**) aurreko Zuluetaneko etxera doian pankarta hori **Anakleto Salazar** agustiño laterandarrari 1911ko garagarrillian (uztaillian) egin xakon omenaldi-egunian jarri zan Kale Zaharrian. Hor irakurten diran euskerazko berbok, **Bizi bedi eun urteduna**, erakusten doskun lez, gizaldi osua bete eben egun haretan Arabako Gaubea baillarako Quintanillan jaixotako gizasemiak. Oso ezaguna zan gure herrixan 1889. urtetik aurrera Oñatiko agustiñuen komentuan bizi zan-eta. Hantxe hil zan 1915eko martixaren 18xan 103 urterekin. Fotografixok oso interesgarriak dira Kale Zaharra zenbateraiño aldatu dan ikusteko (ez larregi, egixa esateko); eta batez be, emakumien soifekuak eta kapelak zelaquak ziran jakittekko.



J. E.

Fotografixak Udal Artxiboko Zubia Fonduan topau dittugu.

Oharra: Fan dan hillabeteko argazkixan despiste haundixua euki geben, protagonista nagusixaren izena oker jarritta agertu zan-eta. Karnazeruaren izen zuzena ezta Migel Plazaola, **Joxe Plazaola** baiño.